Toki gehiago dago handiagoa da lokala, aukera gehiago ematen daue eta toki egokiagoa da, herritik gertuago ez dago gordeta eta segurtasun neurriak eta akzesibilitadea askoz onagoa. Orduan martxan jartzen dugu proiektua. Gainera, uste dut planoak kaleratu diezela nonbaitetik filtratu diezela batzordera heldu baino lehenago. Orduan hori urrian gabiz hitz egiten horrena, azaroan lapurreta bat dago emakume txokoan bertara hurbiltzen naiz Maitekin eta Larraitzekin hitz egiten dut eta bueno nahiz eta tokiz aldatu ze prozesu luze bat izango da, gutxienez 2017ra arte ez da amaituko nahiz eta 2016an hasi, goazen segurtasun neurri batzuk planteatzera, segurtasun ate bat, kamarak, alarmak, gauza ezberdinak. Eta konbokatzen da abenduan berandu seguramente hor barkamena eskatuko dugu igual ez gara horretan ibili nahiko azkar, baina abenduan konbokatzen da segurtasun batzorde bat.

Beraiek azaltzen daue teknikariak, polizia munizipaleko arduradunak, pertsonaleko arduradunak, Juan Karlos eta biok egon ginen, azaltzen daue beraien ikuspuntua eta guk azaltzen dugu guria. Eta geratzen garena da informazio guztia batzen dauenian bai kamarena bai eta alarmarena baita atearena berriz konbokatuko dela segurtasun batzordea. Segurtasun batzordea konbokatzeo aukerak dauzkagu hoin urtarrilean konbokatuko da berriro be eta jarriko die mahai gainean.honetaz, ia niri ia heldu jat lehenengo eraso 2014an egon zan eraso bat emakume txokoan, eraso bat, eta horren ostean konbokatu zan, segurtasun mahaia.



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

Segurtasun mahai hortan erabakitzen da pasarela hori itxia bueno erabakitzen da gauza ezberdin asko debatidu ondoren eta hoietako gauza bat da eta udaltzainburuak ondotzat ematen dau kamarak jartzea. Eta hori atzera botatzen da berdintasun saileko teknikariak ezezkoa ematen dauelako eta kasu hortan erabakitzen da pasarela bat egitea

Momentu hortan ez dugu ikusten leku aldaketa bat dauen momentuan 80.000 €ko gastu bat egotea, segurtasuna bermatzeko baina bai ikusten dugu segurtasuna bermatu egin behar dela ez dazela segurtasun maila apropos baten. Horregatik urtarrilean konbokatuko da berriz segurtasun batzordea eta hortik ikusiko dugu nora joango garen. Eta sortzen da bideo zaintzako linea hau presupuestoan baiezkoa ematen bada edukitzeko ia presupuestoa.

O.GARCIA (PSE-EE):

Ni gauza bat esatearren, niri komisioa izan zan atzera bota zuena pasarela famatu hori egitea. Zergatik bota zan atzera? Seguritatea ez zuelako bermatzen batere, batere pasarela bat zertako? Ikusteko nor datorren edo nor ez datorren, bueno egin dira jadanik ia egin dira gauza batzuk igeltseroekin eta, obra bat eginda eta gaur egun hobeto dago lekua zegoena baino eta alarma zentral bat jarri behar da, berriro gerta ez dadin gertatutako kamararen kontua oso ondo azaldu du Anderrek eta ate berri bat jarriko da, ate berezi bat berriro gerta ez dadin gertatutakoa. 2014an gertatutakoa ez hoin gertatutakoa ze hoin gertatu dena da lapurreta besterik ez, larriagoa izan zan 2014an gertatutakoa.

Beraz, nik uste dut gauzak ondo egiten ari direla segurtasun aldetik dena ondo bermatzeko eta pausoak poliki-poliki ematen ari dira baina sendo eta tinko. Ondo eta nik uste dut lokal aldaketarekin arazo guztiak zuzenduko direla baina bitartean 2017. urte arte segurtasuna bermatu behar dugula emakume txokoan eta horretarako Anderrek estu-estu lan eginez nik uste dut egiten ari direla gauzak hori bermatzeko eta ondo egina gainera. Besterik ez.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Berriz ere tranpa semantiko bat eta dialektiko, hau da, gu lokalaren aldaketan aurka ez gaz ez dugu hemen aipatzen baina badirudi pisua fokoa hor jarri dela eta gu zentzu hortan aztertzearen alde gaz. Arearena esaten da ekimen zehatz honen inguruan eta esan dan moduan hiletan zibilen kasuan hobe dela ez aurreikustea gauzak hemen ia aurreikusten dau urtarrileko bilera baten emaitzak zein izango dan ze partida bat sortzen da aurreikusiz emaitza posible bat hori da nik egiten doten irakurketa behintzat eta gero agian, estilo kontua da hemen bakoitzak bera dauka eta dana da defendagarria baina teknikarien izen-abizenak holan esatea ere.

A.GARAY (EAJ-PNV):

Nahi baduzue izena aldatu leike segurtasun neurri batzuk egon behar direla aurreikusten dugu nahi baduzue bideo zaintza sistema emakume txokoan ezarri beharrean ez ez lehenengoa nago hitz egiten aldatu daiteke eta emakume txokoaren segurtasun neurriak eta hor dago kantitate bat. Bigarrena tekniakrien izena nik uste dut ezaguna dela ez dotzat seinalatu behintzat ezer txarra beria esan.



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Guk hori ondo ikusten dugu azkenean guk ikusten duguna da planteamendu ireki bat eramatea eta bileratik irtengo den ondorioak ikustea. Guk ikusten genuena zan eta gureko genuena zan hori bada aurreikusten dan segurtasun neurri bakarra ba tira baina beste modu bat egoten bada planteatzeko gukm hor ez daukagu arazorik.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Orduan emendakina bertan behera gelditzen da.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Izena aldatu dezakegu eta jarri behar denean bideo zaintza segurtasun sistemaren barruan sartu eta gero ikusiko da lan hori egiten danean urtarrileko bileran erabakitzen dan bideozaintza dan sistema edo beste bat dan eta gainera zelan daukagun leku aldatze berri horrek agian eszenatokia aldatu leike be bai. Izena aldatu leike Ander hemen Amaia, bai.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Igual bozkatuko duguna da izango da izen aldaketaren partida horri izena bozkatu eta emendakina bertan behera gelditu? Edo ez baldin baduzue nahi ez? Ez dakit? Inprobisazioa.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Hau da justo gainera ibili ginena komentatzen ogasun batzordean ez zala egin behar eta hemen gaz plenoan herritarren aurrean inprobisatzen ez? Hombro geuk zuen konpromiso berbala egoten bada hoin hau beste era batera lantzeko eta planteamendu ireki bat eramateko eta segurtasun batzordeak aukera diferenteak aztertzeko guk hoin erretiratu geinke emendakina eta benetan gero presupuestoan beste era batera agertzen bada, ba nik uste dut zuzenagoa izango dela hemen hastea baino izenak asmatzen eta beste era batera planteatzen. Orduan, bozketa aurretik igual guk erretiratu.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Orduan bertan behera. Nik uste dut tema honi buruz hitz egin dugu, tema honi buruz hitz egin dugu 10.000 bileratan porke hau ez da lehenengo aldia. Honi buruz hitz eginda komisiotan ez dakit zenbat aldiz, zuen Eneko Fernandezekin Anderrek hitz egin dau mila bider, teknikariekin hitz egin dau, gure arteko bileratan bi bider hitz egin genuen tema honi buruz, hau da, gai hau ez da berria eta badakizue leku aldaketa proposatu genuela ba teknikariak kamaran asuntua ez zuelako ikusten baina egia da ia bigarren agresio edo akzio zatar egon dela emakume txokoan, 2014an egon zan bat eta 2015ean egon zala bigarrena eta egia dela pasarelak azkenean, orain egin den lapurketa leiho batetik izan da. Pasarela horrek ere bueno ez luke adibidez, 2015eko lapurketaren aurka ezer berezirik egingo eta kamaren planteamendua da, planteamendu bat, baina hori ere badakizue. Orduan, nik uste dut gure izan dan honekiko gure jarrera hau aurkeztu baino lehenagotik ere bazenekizuela gehiago bider



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

emendakina aurkeztu eta bi bider juntau gare zurekin eta esan dizuegu zein dan gure planteamendua.guk badakizue jarrera irekia daukagula eta egia da harritu egin ginduela, berriz ere plenora emendakin hau ekartzera baina bueno Anuskak esan duen bezala, Anderrek esan duen bezala guk ez daukagu inongo arazorik partidari izena aldatzeko. Guk itxoingo dugu segurtasun batzorde horrek ea abenduan ze esaten duen baiian egia da, aurreko urteetik daukagula ia bueno segurtasun txosten bat eta hor medida desberdinak analizatu ziren.

Kamaretakoa izan zen bat baina ere analizatu zan bigilantzia zerbitzu bat edukitzea, ere analizatu zan alarma bat ipintzea, hau da, aukera desberdinak egon ziren mahai gainean eta pentsatzen dut aukera hoiek oraindik mahai gainean daudela. Orduan gure konpromisoa bai gure konpromisoa bai da partidari izena aldatzea guk ez daukagu inongo arazorik horrekin.

E.BARBERENA (EH-BILDU)::

Zure hitza hartuta printzipioz partidari izena aldatuta eta utzita nolabait batzorde horren esku zein dan segurtasun neurri aproposena mugatu gabe kamaren ezarpenera bueno ba printzipioz erretiratzea planteatzen dugu eta ez pasatzera bozkatzera.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Oso ondo, Eskerrik asko Eneko bueno ba orduan hurrengo emendakina aurkeztera mesedez.

E.BARBERENA (EH-BILDU):

Udalaz gaindiko proiektuetako laguntzan aurreko be ibili ginen komentatzen eta jabe gara alde batetik, ze paradoja bizi dugun, hau da, errazagoa da udalarentzat batzutan laguntzea kanpo kooperazio bidez Nepalgo proiektua bat, Xiburuko proiektu bat baino. Baina guk sinisten dugu euskal herriak behar duela barne solidaritate, barne laguntza ere sinisten dugu baita euskal herrian eraikuntzan eta zentzu hortan ezin dugula albo batera utzi bueno gure herriak dituen erronkak konpartiduak ez? Gure proposamena zan diru partida mantentzea gure konpromiso irmoarekin irtenbide tekniko bat aurkitzeko gaiari uste dugulako kopurua mantentzea inportantea dela bueno ba lehen aipatutako arrazoiengatik.

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Gu baita gaz euskal herrixan eraikuntzaren alde, bakarrik hemendik inork honen aurka bozkatu dugu batez be uste dugulako hemen jartzen du udalez gaindiko proiektuaren laguntzak. Uste dugu proiektuak etorri ahala, aztertu ahala, ulertzen dugu 2016an zehar proiektu hoeik aurkeztu daitezkeela mahia honetan, plenoan batzorde bidez eta horiek aztertu eta mozioen bidez onarpena eman leikeela baina horrela sartzea ekilibrio presupuestario hori ere bilatu nahi zan eta ez dugu ikusten emendakin bidez aurrekontuetan partida hori egotea baina proiektuak egon ahala berriz ere askatzeko prest gauzela eta onak badiez euskal herrian eraikuntza horretarako gu be hor izango gaituzue



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bertaratutakoak	21	
Aldeko botuak:	7	EH BILDU (7),
Aurkako botuak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:	3	BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)

E.BARBERENA (EH-BILDU)::

Azkenengoa da lotuta etxebizitza eskubidearekin eta bueno lehen aipatu dugun memorian ze arreta eskasa eskaintzen jaku honi Merinok lehen be aipatu dau IBIaren erreargua kendu da eta ez dago alternatibarik ez? Eta gogoratu nahi dut urriak 13ko plenoan esandako hitz batzuk ez? Eta hitz horretan plenoko kide baten aipatzen dau. Hortan guk hemen ikusten ditugu bi bide daudela eta zigorraren bidea da bide bat edo ikuspegi bat eta beste bide bat da estimulatzearen bidea.

Ze estimulazio ari gara? Ze neurri dago estimulatzeke etxebizitzarako eskubidea, alokairurako eskubide soziala eta hemen ikusten duguna da beharra partida bat egoteko gero gaiak behar ditugun neurriak planteatzeko.

J.L MERINO (IRABAZI):

Estoy de acuerdo con la intervención de Eneko es verdad que en octubre se aprobó una moción aquí en octubre o septiembre fue en la cual el punto dos decía que este ayuntamiento pondrá todos los medios y recursos municipales necesarios para la paralización de desahucios y desalojos de primera vivienda y para garantizar en su caso una alternativa habitacional, es verdad, que no se contempla nada en estos presupuestos absolutamente nada. En este sentido, no? Bueno habiendo presentado la enmienda a la totalidad que ya lo incluía dentro de esa enmienda apoyo totalmente la iniciativa de BILDU ¿no?

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Aurreko mozio baten ostean dator zuen komentarioa igual bai uste dut batzorde bateri dagokiola lan horretan sartzea eta agian aurrekontuak momentu honetan berriz dinot harraminta finantziario bizi bat da, momentu honetan igual ez dago, ba ez delako aztertu batzorde horretan ba egia da, agian, nos tenemos que poner las pilas la comisión pertinente para una respuesta a ese compromiso que adaptamos en ese moción eta bai esan arrasateko udalak Eusko Jaurlaritzako etxebizitzako departamentuarekin lanean gaudela eta bai daukagu Garibai etorbideko 14. eta hor dihoaztela gazteentzako alokairu bultzatzeko etxebizitzak. Nahiko da?



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

Ez badakigu ezetz baina lehenengo pauso bat da eta jarraituko dugu aztertzen beharrak eta jarraituko dugu danok lanian gai honetan eta berriz dinot ez da nahiko badakigu ez dela nahikoa baina hortan ari gara eta hau da lehenengo putzua etxebizitza departamentuarekin Garibai etorbideko 14. eta hortik aurrera espero dugu gainera, beti esaten da gazteei horrelako etxebizitzak zentrotik urrun edo beti leku txarretara bidaltzen dugula saiatu gara leku atsegina batetan, danak dira atseginak Arrasaten, de hecho atsegina batetan egoten eta hemendik aurrera saiaturako gara ez dakigu zenbat pisuetan irten daitezkeen 16 bat uste dugu ba bueno izan daitezkeen 16 bider 16. mila esker.

J.L MERINO (IRABAZI):

Si Anuska me parece positivo todo estos movimientos que se hagan y a favor de la gente desahuciada y de la gente que tiene problemas con la hipoteca ¿no? Pero también estamos hablando de esa partida yo creo que estaba hablando Eneko también de la necesidades que tiene esa gente que se siente que va a ser desahuciada, la necesidad de ayuda psicológica, de ayuda jurídica, todos esos ayudas es gente que no tiene recursos si son desahuciados no tienen recursos. Este ayuntamiento como institución cercana al ciudadano tiene que aportar por lo menos, crear una partida en la cual se garantice ese mínimo no solo el habitacional, dar otra vivienda.

Entonces también es un servicio ¿no?

A.EZKURRA (EAJ-PNV):

Perdón estábamos hablando de otro tema yo creo pero respondiendo también este tema que estabas ahora diciendo si tenemos en temas sociales partidas de ayudas para gente con necesidad no solo habitacional, sino jurídica, psicológica, si creo que quizás tenemos partidas y tenemos ayudas y tenemos servicios que estamos ofreciendo a la ciudadanía que en la ciudadanía no esta enterando que las tenemos. Quizás hay si tenemos que poner el foco y tenemos que hacer y creo que es de todos el compromiso del gobierno y así lo asumimos y lo asumiremos pero lo asumimos pero en un trabajo de todos que quizás tenemos ayudas y tenemos partidas y todos los conocéis están en los presupuestos partida por partida y quizá la gente no se esta enterando. Hay tenemos un gag y lo que tenemos que hacer entre todos agian hori da, guztiok egin beharreko lana argi daukagu.

Dauzkagu dirulaguntzak, dauzkagu partidak eta lehen esan ditudanak ez gara %10etara heltzen eta sortu ditugu benetan beharra pertsona bati erantzuteko pertsonen erantzuteko agian egin beharra da jendearengana hurbiltasun handiagoa bat eta gaur egun ez daukaguna eta Orduan hori izan beharko litzateke izango da eta konpromisoa hartzen dugu helaraztea jendeari benetan udaletxe honek ematen dituen zerbitzuak. Mila esker.

E.BARBERENA (EH-BILDU)::

Nik Juan Luisek aipaturako neurriekin be ados egonda iruditzen jat Anuska nahiz eta ondo ikusten dugun eta badakigun Garibai 14an dagoela ekimen hori ez da aipatzen ez dago inon presupuestoetan



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

ez da agertzen memorian, ahoz azaldu diguzu asmo hori baina gero ez dugu aurkitzen hori da guk bakarrik gure emendakinekin agerian utzi nahi genuena

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko Eneko. Ez da agertzen aurrekontuan ze eraikina eusko jaurlaritzarena da ez da udalarena eta horregatik ez dago diru partida bat baina nahi baldin badizute informazioa eskakizuna formalki egin dago hirigintza batzordetik eta hirigintza batzordean daukazue horri buruzko informazioa.

Besterik ez bada emendakina bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratutakoak	21	
Aldeko botuak:	10	EH BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Aurkako botuak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Abstentzioak:		

Beraz, ez da onartzen.

Diktamena gelditzen da gure idazkariak hasiera batean irakurri duen diktamena egia da partida konpromiso horrekin partida horren izena aldatzeko, hau da, emakume txokoaren bideo-zaintzaren sistemaren partida horren izena aldatzeko konpromiso horrekin. Beraz, diktamena bere osotasunean bozkatzera pasatuko gara.

Bertaratutakoak	21	
Aldeko botuak:	11	EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)
Aurkako botuak:	10	EH BILDU (7), BALEIKE (2) eta IRABAZI (1)
Abstentzioak:		

Beraz, onartu agelditzen da.

2.- 2016KO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA (2015PRPT0003)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Enplegu Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.2. artikulua xedatzen du Udal Korporazioek egingo dituztela euren antolaketako lanpostu guztien zerrendak, eta agindu edo arau horrek eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.4 artikulua, Toki Araubideari buruz indarrean dauden legezko xedapenen testu bat eginga onartzen duena, gehitzen dute,



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

lanpostu horiek egokituko zaizkiela Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak Euskal Autonomia Erkidegorako Funtzio Publikoari buruz osatuta duen oinarrizko legerian jasotako terminoei.

Bestalde, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutua erregulatzeko duen apirilaren 12ko 7/2007 Legeak ezartzen du ere Administrazio Publikoek egituratuko dutela euren antolamendua lanpostuen zerrenden bidez eta antzeko beste tresna batzuen bidez, eta horiek osatuko dituzten, behintzat, lanpostuen izenak, sailkapen profesionaleko taldeak, atxikita dauden kidegoak edo eskalak, hala badagokie, hornitzeko sistemak eta ordainketa osagarriak.

Egon dauden beharrak zehazteko prozesua bukatu eta gero, azken hilabeteotan udal sailen partaidetzaz egin dena, Pertsonal Sailak 2016 urteko lanpostuen zerrenda egin du (ERANSKINA), ezarritako gutxieneko beharrezko datuak jasotzen dituen eredian eta Udaleko langile funtzionario, lan-kontratuko langile eta behi-behineko langileentzako diren lanpostu guztiak hartzen dituen, aurrekontu dotazioa dutenak.

Zerrenda horretatik kanpo gelditu da, azkenik, Berdintasun sailetik *‘Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Planaren ebaluazioa’* egiteko berdintasun teknikari bat urte betez kontratatuzeko egindako eskabidea; izan ere, Ogasun batzorde informatiboan aurreikusitakoaren arabera, ‘funts’ bat sortuko da 2016ko udal aurrekontuen 2. kapituluari, aipatu ikerketa egin ahal izateko eta aurrerago erabaki ahalko den formula erabiliz.

Pertsonal Batzordeak, gaia ikusi eta jorratu ostean, aho batez, hauxe PROPOSATU DU:

Lehena: Onartzea 2016ko Lanpostuen Zerrenda, Eranskinean datorren agiriaren arabera.

Bigarrena: GAO-n argitaratzea onartutako agiria, aurrekontuen laburpenarekin batera, eta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan 127 artikuluan jasotakoa betez, haren ale bat bidaltzea baita ere dagokion administrazioari.

3.- 2016KO PLANTILA ORGANIKOA ONARTZEA (2015PRPT0003)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Enplegu Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 90.1. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.1 artikulua xedatzen dute Toki Korporazioari dagokiola, aurrekontuaren bidez, Plantila Organikoa onartzea urtero, funtzionarioei, lan-kontratuko langileei eta behin-behineko langileei erreserbatutako plaza guztiak bilduko dituen.

Hori dela eta, 7/1985 Legearen 90 artikuluan jasotako arrazionalitatea, ekonomia eta efizientzia printzipioen arabera agiri hori prestatu eta gero, Pertsonal Batzordeak akordio hau hartzeko proposatzen dio udalbatzarrari:



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

Lehena: 2016ko urtealdirako Plantila Organikoa onartzea; funtzionarioei, lan-kontratuko langileei eta behin-behineko langileei erreserbatutako plaza guztiak hartzen dituen, ERANSKINean datorren ereduaren arabera.

Bigarrena: GAO on argitaratzea onartutako agiria, aurrekontuen laburpenarekin batera, eta, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuan 127 artikuluan jasotakoa betez, haren ale bat bidaltzea baita ere dagokion administrazioari.

4.- Udal enplegatuen ordainsariak direla eta, akordio proposamena. (2015PLHI0003)

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Enplegu Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Eudel erakundeak bidali duen zirkularra ikusita, 2015/12/10ean bidalia, erakundeak eta sindikatuek egiten diharduten negoziazio prozesuari buruz Udaltz arduratutako akordio erregulatuak osorik berraztertze, zeinetan, akordiorik ez dagoenez aldean artean, gomendatzen baitaie udalei, mankomunitateei eta gainerako erakunde publikoak, haien erakundeetan bertan onartzeko hainbat neurri ordainketei buruz, hala nola modernizazio eta produktibitate funts bat jartzea, langile publikoen ordainsari berezi gehigarria berreskuratzea, 2012 urteari dagokiona, eta % 1eko ordainketa gehikuntza gauzatzea 2016ko ekitaldian.

Proposamena aztertuta, eta honakoak kontuan hartuta:

- ✓ Negoziatio kolektiboaren prozesuaren ostean, aurreko Udaltz arduratutako alde sozialarekin izandakoa ekitaldi honetako lehen hilabeteetan, kreditu aldaketaren bidez, Udaltz arduratutako onartua 2015/05/12an, 2015eko ekitaldiko aurrekontuan ezarri zen aurrekontu erreserba espezifiko bat, 713.909 euro, gerora egin zitezkeen akordioei erantzuteko, betiere, lege esparruaren barruan, ezarri badaitezke udal langileek 2011-2014 aldian galdutako erosteko ahalmenaren konpentsazio moduan -behintzat partziala, baita ere, hala badagokio, 2012ko uztail-2013ko abenduaren aldian Elkarkidetzari ordaindu gabe utzitako ekarpenak.
- ✓ Estatuaren 2016ko Aurrekontu Orokorren Legeak 12. xedapen gehigarrian ezartzen du, *'Administrazio Publiko bakoitzak, bere eremuan, onartu ahal izango duela 2016ko ekitaldian, eta aldi bakar batean, ordainketa berezi bat, zeinaren zenbatekoa izango den oraindik jaso gabe eta berreskuratu gabe dauden kopuruaren baliokidea, hau da, ordainsari berezia, osagarri espezifikoaren ordainketa gehigarria edo ordainketa gehigarri baliokideak, 2012ko abenduari dagozkionak, kendu izanaren ondorioz jaso gabeak, aplikatuta 20/2012 Errege Lege-Dekretua, uztailaren 13koa, aurrekontua egonkortu eta lehiakortasuna sustatzea bermatzeko neurri buruzkoa, xedapen honetan ezarritako mugekin'.*
- ✓ Estatuaren 2016ko Aurrekontu Orokorren Legeak 19.2 artikuluan ezartzen du, *'2016an, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainketez egingo dutela izan % 1 baino gehikuntza global handiago bat 2015eko abenduaren 31n indarrean dauden aldean, homogeneotasun terminoetan konparazioaren bi aldiatarako, bai langile kopuruari buruz bai haien antzintasunari buruz'.*



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

- ✓ Estatuaren 2016ko Aurrekontu Orokorren Legeak 19. artikuluan, 7. atalean, ezartzen du, *'aurreko ataletan xedatutakoa (19.2 sartuta) ulertu behar dela kontuan izanda egokitzapenak egin abal direla ordainketetan, era berean eta salbuespenez, betiere ezinbestekoak badira lanpostuen edukiarengatik, programa bakoitzari esleitutako langile kopurua aldatzeagatik edo programari ezarritako helburuen lorpen mailarengatik'*.
- ✓ 36/2014 Legeak, abenduaren 26koa, Estatuaren 2015eko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, ezartzen du 20.3 artikuluan, *"balidin eta Administrazio horren soldata masa gehitzen ez bada, Lege honek ezartzen dituen terminoetan, ekarpenak egin abal izango dizkie enpleguko pentsio planei edo aseguru kolektiboko kontratuei, erretiro kontingentzia estaltzea jasotzen badute, betiere plan edo aseguru kontratu horiek sinatuta egon badira 2011ko abenduaren 31 baino lehen"*.

Enplegu eta Pertsonal batzordeak, ordezkari sindikalei berri eman eta gero, akordio hau hartu dezan proposatzen dio osoko bilkurari:

AKORDIOA:

- 1.- Langileek, neurri batean, erosteko ahalmena galdu dutenez azken ekitaldietan, bideratzea **FUNTS** bat sortzea modernizaziora, zerbitzu publikoak ematerakoan arrazionalizazioa lortzera, eta erakundearen administrazioaren produktibitatea hobetzera, zuzenduta, **458.909 euroko** zenbatekoa, aurrekontuan hori egiteko aukera dagoenean, eta dagozkion legezko terminoetan, exekutatu dadin 2016ko ekitaldian eta/edo hurrengoetan.
- 2.- Halaber, legez hala badagokio, **FUNTS** gehigarri bat jartzea, **255.000 eurokoa**, **Elkarkidetzari** 2012ko uztail-2013ko abendu aldian ordaindu ez ziren ekarpenak egin ahal izateko.
- 3.- 2016an, eta aurrekontuak aukera ematen badu ordaintzeko, berreskuratu gabe dagoen **2012ko urtearen ordainketa bereziaren** gainerako kopurua ordaintzea, 91 eguni dagokiona (**% 49,73**aren baliokidea), hori guztia bat etorri 2016ko EAOL 48/2015 Legeak jasotzen duen aukerarekin.
- 4.- 2016ko ekitaldirako, udal honen zerbitzura dauden langileen ordainketek izatea **% 1eko gehikuntza** bat 2015eko abenduaren 31n indarrean dauden ordainketei buruz, homogeneotasun terminoetan konparazio aldi bietarako, bai langile kopuruari dagokionez bai langileen antzintasunari dagokionez, hori guztia 2016ko EAOLan jasotako aukeraren arabera.
- 5.- Akordio hau bidaltzea Euskal Udalerrien Elkarteari-EUDEL.

5.- GALDE ESKEAK:

I.URIZAR (BALEIKE):



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

Bueno lehenengo eta behin komentatzea oso demokratikoa eta erraza dela erantzuteko aukera utzi gabe duzun boterea aprobetxatuz hasieran bota duzun diskurtsoa egitea Maria. Bakoitzaren estiloa uste dut nabarmen agerian geratzen dela. Gero apuntetxo bat eta harritura gelditu naiz eta gezurra dela hedabideetara zabaldu dugula mezua zurekin hitz egin baino lehenago eta hori oso erraz probatu daiteke baina bueno suposatzen dut ipuin eta narratiba bezala oso ondo gelditzen dela.

Ondoren, adierazpen bat irakurrikot pixkat azaltzeko, sei hilabete igaro dira udal kudeaketa hasi zenetik Baleike udal taldeak asanbladan bildurik sei hilabete hauek igaro ondoren akordio eta egoerari jarraipen bat egingo zuela erabaki zuen eta hurrengo hausnarketa eta erabakiak burutu ditu.

Uztailaren 13an bi alderdiek EAJ eta Baleike akordio batera heldu ziren puntu batzuetan bien programak partekatuz. Hurrengo Baleikereren programako puntu batzuk aurrera eramatea adostu zuen, hiritar partehartzearen gaineko ordenantza bat ateratzea, udal gardentasun webgune bat eratzea, non hiritarrei arrasateko udaletxeko funtzionamendu prozedura, proiektuen inguruko buruzko informazioa etab informatuko zitzaien.

Gobernu taldeak eta EAJ alderdiak ez dituzte puntu hauek bete 6 hilabete hauetan eta ez dute inolako interes edo betetzeko jarrerarik erakutsi. Partehartze irizpide eta metodologia batzuk landu eta aurkeztu ditugu kosto oso urrikoak eman zitzaizkigun erantzunak ezezkoa edo hutsak izan dira beti lantzen gabitz, beranduagoa, sei hilabete eta oraindik ez dugu inongo emaitzik ikusi.

Udalan burutu diren partehartze prozesuak bakanak eta isolatuak izan dira konturatu gara arlo honetan ekimenak ezkontu egin dituztela beste udal taldeekin hitz egin eztabaidatu eta adosteko lanak bigarren plana baten baztertuz. Honetaz gain, partehartzerako partida bat eskatzeko beharra izan da. Bere gain hartu duten partehartzearekiko ardura urria geldituz.

Akordioak argi dio bi alderdietako batek ez baduela sinatutakoa betetzen hauetako batek amaituta eman ahal izango duela eta baleikek ongizatea arloari uko egingo diola. Ongizate arloa ilusioz eta gogor lan eginez aurrera eramaten saiatu gara eragile desberdinekin hitz egin eta gure gizarte ikuspuntua txertatu nahian. Gure helburu nagusiak harrera protokoloa martxan jartzea arrasatera datozen hiritar berriei bidea erraztuz eta tokiko gizarte erakundeei laguntzak eta koordinazio hobetzea izan dira. Behar larrienean dauden hiritarren laguntza programekin egin den lan fina jarraituz.

Gobernu taldeak ongizate arloa kudeatzeko autonomia ematen ziola baleikeri adierazi zion saileko aurrekontuen eraketa kudeaketaren ardatzetako bat izanik. Konfiantza hau puskatuta gelditu dela deritzogu saileko aurrekontuak aurrera atera ahal izateko baldintzak jarri zitezkegun momentuan.

Arloa behar den bezala eramateko ahalmenik ez zaigula uzten eta ez dugu nahi baldintzaturik kudeatzea herritarrei iruzurra egitea izango lizatekeelako

Sinatutako akordioa eta konpromezua aurrera zintzotasunez eramaten saiatu gara baina ezberdintasunak handiegiak izan dira prozedura eta politika mailan. Gure proposamen proiektu ikuspuntu eta politika lan egiteko erak ez dira bateragarriak eta hitzak politikak izan daitezkeen arren ez ditugu gure lan eta ideia politikoak islaturik ikusi.



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

Oposizioan jarraituko dugu eraikitzeke asmoz, kaletik baina inongo arloren kudeaketa eraman gabe ez baitira horretarako baldintzak ematen.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko Igor. Gaur goizean eman dozkuzue erantzun hori ba pleno aurretik eta gaur goizean egin duzue bueno prentsara deialdia baina gu gaur goizeko hamaiketan enteratu gara. Eta baita nahi dut garbi lagatzea eta herritarrei esatea zuek hartzen duzuela erabakia, zuek hartzen duzuela erabakia akordio apurtzeko bi puntu hauek erabilita jakin dakizuenean ez dala egia akordioaren punturik hausterik ez gaudela baina errespetagarria da zuen iritzia eta zuen erabakia izan bada baita ere gizarte ongizateko batzordea ez eramatea. Eta jartzea eskusa bezala aurrekontuarena noiz aurrekontua lantzen abendutik hasiak gara eta zuek ikusi izan bazenute gure aldetik ez zegoela inongo askatasunik bueno erabakia ez da hartzen hauteskunde ondoren, erabakia hauteskunde baino lehen hartzen da ze aurrekontua hauteskunde aurretik ia eginga zegoen eta bueno besterik ez dut nahi esatea.

Nik bai daukat ez dakit beste galde-eskerrik dagoen bai.

J.L MERINO (IRABAZI):

Sin más en aras de la transparencia y todo esto también pedir que desde mancomunidad se nos trasladen las actas por lo menos que tengamos ya que no estamos representados en mancomunidad que podamos acceder a ellas.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Bai mankomunitatean alkate ezberdinak daude eta pentsatzen dugu prozedurarik egokiena izango litzatekeela mankomunitateko lehendakaria eskakizun formala egitea. Baina bueno eskakizun formala eginez gero udaletxeak eskakizuna mankomunitatera bideratuko du ba bueno cauce ofiziala erabiltzeko ze azkenean han alkate desberdinak beste herri batzuetakoak baita ere eta nik bai daukat eskaera bat eta ez dala lehenengo aldiz, eta bozeramale batzordean askotan hitz egin dugun gai bat da baina gaurko pleno honetan ikusi dut berriz ere. Erderara jotzeko joera daukala udalbatza honek ezta?

Ez bakarrik ahoz baizik eta emendakin batzuk gobernura ere erdera hutsean iritsi ziren eta osotasunerako emendakinetako bat ere erdera hutsean iritsi da nahiz eta bozeramale batzordean esan genuen ahalegina eskatu genuen behintzat udalbatzako zinegotzi guztiei esfortzu bat egiteko eta behintzat elebietan aurkezteko eta bueno hurrengo urtera begira nik eskatuko nizueke udalbatza osatzen duzuen zinegotzi guztiei esfortzu bat egitea plenoan euskara izan dadin gure hizkuntza eskerrik asko.



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

ARRASATEKO PRESOEN SENIDEAK:

Arrasateko preso politikoen senide eta lagunaren partez eskaera bat egin nahi diogu udalari. Zazpi preso daude arrasaten eta beste hainbat iheslari ere batz bestea 1646 km egiten ditugu astero gure senideak 40 minutuz bisitatzeko. Gure artean denetik dago distantzia eta bidaiaren gogortasunaren ondorioz semea bistatu ezin duen ama, anaia Murtzian eta semea Parisen duen gurasoa, aita bisitatzeko 700 km gora egin behar dituzten haurrak, zerrenda amaigabea da

Sakabanaketak gainera astero 1530 €tako diru kostoa eragiten digu arrasateko senide eta lagunoi nahiko genuke alderdi politikoei presoen gaia, beraien agendetan izatea eta giza eskubideetan oinarrituriko akordioetan elkarrekin egotea. Halaber, uste dugu gatazkaren konponbidea etorriko dela gatazkaren ondorioei ere soluzioa ematen zaienean. Urtarrilaren 9an Sarek eta bagoazek Bilbon eta Baionan manifestazioak deitu dituzte gure senideei aplikatzen zaizkien salbuespeneko neurriak desaktibatze horien artean hainbesteko sufrimendua eragiten digun dispertsioa.

Udal gobernuari zera proposatu behar diogu maindire hau balkoian jarri dezala hemendik eta urtarrilaren 9ra herriak ikus dezan oraindik ere eskubideak urratzen zaizkien herritarrak ditugula arrasaten. Beste barik mila esker eta urte berri on. Eta udalaren buru bezala alkateari emango diot banderola.

M.UBARRETXENA (Lehendakaria):

Eskerrik asko. Eta beste galde eskaerak ez baldin badago amaiera emango diogu gaurko plenoari. Eskerrik asko denoi etortzeagatik.

Eta beste gairik ez dagoenez, Udal Plenoburuak, arratsaldeko 14:25tan, amaiera ematen dio bilkurari. Eta nik Idazkariak hori guztia ziurtatzen dut akta hau jasoz.

Arrasaten, 2015eko abenduaren 29a

IDAZKARIA

LEHENDAKARIA



Esp.-kodea: 2015SAPL0016

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

María Ubarretxena Cid